

## **IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEAREN/IRUÑERRIKO ZERBITZUAK, S.A. SOZIETATEAREN HARREMANEN ERREGELAMENDUA ALDATZEKO PROIEKTUA EGIN AURRETIKO HERRI KONTSULTA**

---

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan ezarrita dagoenaren arabera, legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarrienek puntu hauei buruz:

- a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

Aurrekoa betetze aldera, eta egin aurretik, aipatutako erregelamendua aldatzeko proiektuari buruz alderdi hauek planteatzen dira.

### **Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.**

Iruñerriko Zerbitzuak, S.A. sozietatearen txostenak ebaztean atzerapenak izatea, haren egintzak Mankomunitateko lehendakariaren aurrean errekurritzen diren kasuetan.

### **Araua hori onestea beharrezko eta egoki den.**

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen sinplifikazioa eta bizkortasuna inspiratu duten printzipioen esparruan, prozedurak elektronikoa izan behar du eta, gainera, ahalik eta sinpleena eta ahalik eta burokrazia gutxien eskatzen duena izan behar du. Alde horretatik, legeak prozesu-berringeniaritza, izapideak sinplifikatzea eta legezko epeak murriztea eskatzen du.

### **Araua aldatzearen helburuak.**

Herritarren eskubideak bermatzea.

Epeak arintzea.

Epeak argitzea.